

Zelan hasi... halan jausi

Ramon ETXEBARRIA AYESTA


Heldu zan herriko jai nagusi bezperea. Udea zan. Iluntzea. Gaur galduta dagoan erromeria ere hasi zan herriko plazan. Inguruan barrakeruak, bolatineruak, txutxeri saltzaileak, kioskoa, eta han, sionularia, pandero jotzaile batek laguntzen eutsalarik. Umeak ere ez ziran falta. Gozokiak non, umeak han.

Gizonezkoak, mutilak, bai ezkondu eta ezkondu bakoak, kanpoan egozan, tabernan, ardao, garagardo eta beste era askotako edabeak edaten, euren kontuak alkarri esanez jaiari giroa ugaritzeko asmotan.

Nelok eta Kaskok ardao bat edaten eben artean, erromerian dantzan ebiltzan neskak aztertzen eragoien. Batak, zein zan atseginena, besteak nogaz egin gura leuken dantzan egitea, batak nori lagunduko leuskion iluntzean etxera, besteak nogaz ezkonduko litzatekean, batak hau, besteak hori, orain zurrutatatu bat gerotxuagoan beste bat, barruak berotuz-berotuz joakiezan lagun bioi.

Ardoaren eraginaz edo, orduak ere aurrera joiazala ta, erromeria amaitzen joiala ta, Nelok eta Kaskok jantzan joatea erabagitzen dabe.

Neloren asmoa, Angegaz dantzan egitea zan. Ange nahiz eta oso polita izan ez, mutil zalea zala zirudian. Ho-



rregaitik Nelok baekian norengana jo. Maitasunak ez baeban hurreratu ere, bai asetzeko asmo zikin, labanak. Ez ekian ze kaltek joko eutsan bide honetatik jarraitzeak!

Ilundu zan eta ingurua geroago ta gehiago bete zan. Soinulariak ixildu barik eragoion inpernuko auspoari. Batetik bolanderen pinpan-potsak, bestetik gazteen abesti eta santzoak atontzen eben gauaro alai ha.

Nelok eta Kaskok euren gaia erabilen euren ahoetan, biak bietara. Halakoren baten Nelok esan eutsan Kaskori:

Nelok.—Hi! Kasko! Goazak dantzan, laster izango dok azkenengo dantzaldia eta ez neukek gura etxera joaterik Angegaz dantzalditxo bat egin barik.

Kaskok.—Hori baino ez badok lagunduko dauat.

Azken zurrutatxoa egin, edontzietako edaria hondarrreratu ta joan ziran dantzara.

Norberak nahi dauanagaz dantzan egiteko ere ardaoz bete behar. Txondorra berotzeko, motorrak berotzeko, berrogarritzat, espiritua edo alkohola behar.

Hasi zan Nelo Angegaz dantzan. Zorionez garritik lotuta egiteko dantza bat zan. Ezin egokiagorik Nelorentzat. Angerentzat ere ez zan nahiezekoa.

Biak gura izan arren dantzan egitea ez ziran ez bata ez bestea ausartzen alkarri ezer esaten. Orain begirakune bat, gerotxoagoan beste bat, baina ixilik. Ez ekien zelan apurtu alkarren arteko mihin-firua.

Denporea aurrera joian. Nelori ahoa zabaltzeko ordua zala gogoratu jakon.

N.—Zer? Hain ixilik egoteko, mihina katuak jan deustu ala?

A.—Eta zuri ardaoak?

N.—Zergaitik dinostazu hori?

A.—Ikaragarrizko ardao kiratsa dakarzulako.

N.—Zer uste dozu ba, tabernan kolonia saltzen dabela?

A.—Horrenbeste banekian. Este barruko uia zein sikatu edaten dozuela esango deustazu, ezta?

N.—Eta horrek zer ardura deust niri. Beti egongo ete gara andrakaz umeak egoten diran moduan, amaren gona-petraletan?

A.—Bai. Batez ere horixe. Orain arte etorri ez bazara badakit zergaitik izan dan.

N.—Igarleren bat ete zaitut?

A.—Horrenbeste ez neuke esango baina lotsati bat zarana bai! Gero multilok zeuok zeuotara, hau hori ta bestea esango dozue, ezta?

N.—Zer esan nahi dozu?

A.—Ba... tabernan harroenak zarienok, jendearen aurrean lotsorrenak zariela. Han gizon ta hemen ume!

N.—Ni lotsorra? Nahi dozu oraintxe bertan mosu bat emotea?

A.—Ez, horratino! Holakorik ez eidazu egin! Ez, ez neukelako nahi baina... orain zuk emongo zeuskidan mosua ez litzateke zeurea izango, ardaoarena baino. Horrez gainera ez neuke izen onik galdu nahi. Zer esango ete leuke hemen inguruan dagoan jendeak?

N.—Hemen gure neska adoretua! Nor da orain lotsorra?

A.—Amaitu jaku gaurkoz dantzaldia. Bihar arte esan behar.

Nelo asko ahalegindu zan arren ez eban lortu Angeri etxera laguntzerik. Mingots hori kentzeko tabernara joan behar. Edozein modutan ere bardin egingo eban baina ez dakigu neurri bardina edango eban ala ez.

Kasko, Nelo baino zerbait lehenago heldu zan tabernara. Txikito bat eskuan ebala Neloren zain. Alkarren barri jakin nahian. Oraingoan Kasko zan barri jakin gurakoa.

Kaskok.—Atara eizak txikito bi!

Taberneroak.—Binan edaten dozak ala?

K.—Ez, Nelo jatok eta ametxorria siku ekarriko jok!

T.—Orduan beterik atara beharko jotsat?

K.—Jakina!

Nelo sartzen zan artean, Kaskok zigarro bat atara eban poltsatik. Ixitu ebanean, Nelo aurreratu jakon eta biak zigarro bana ezpanetan ebela barriketan hasi ziran.

K.—Zelan joan dozak gauzak?

N.—Etxakiat. Bardirudik batzuetan biguntzen dala baina beste batzuetan otarrea baino zorrotzagoa dok.

K.—Zer? Ez daua itxi nahi doana egiten ala?

N.—Bai, zera! Bateko berba-bideak ipiniko doguzala, beste teko ez jakiat zer... saku bete aitzaki. Horixe, mila aitzaki.

K.—Ezinaren nahia ez?

N.—Horrenbeste ere ez neukek esango, baina ahal izanez gero, zergaitik ez?

K.—Hi! Geuk ere ez gendukek gureko ezer geuretariko batentzat ez?

N.—Tirauk mutil! Horrelako asazkalditxo batek ez jotsak kalterik egiten inori.

K.—Hori dok astakeria! Edozer esaten dok. Heu ondo ibiliez gero... Heuk pentsatzen doan moduan pentsatzen dauala uste dok ala?

N.—Tirauk, tirauk. Nik neuk ordainduko joat neure pekatuaren zorra. Hik ez daukak ezer ordaindu beharrik. Gogoan eukik!

K.—Jakina! Ez joaguk besterik behar! Hik jan eta guk lan!

N.—Aldatu daiguan gai hau eta beste ardaotxu bat edan!

Orduak aurrera joiazan eta ardao bat hemendik ardao bat handik, ia ok eginarte jarraitu eben gure gau-txoriok.

Gau haretan ez eban ia lorik ere egin. Egin eban apurra epeka eta itxartzen zan bakoitzean izarditan itxartzen zan. Goizaldean heldu zan arren etxera, inoizkorik eta luzeen egin jakon gau ha.

Zelan edo halan lortu behar joat ba, neska hori! zelan edo halan lortu behar joat neska hori! Hamar bat aldiz esan eta noizean behin ekubilkada bat emoten eutsan oheari.

Izugarrizko borroka bat sortu zan Neloren barruan. Alde batetik Kaskoren berbak gogoratu jakozan. Beste

batetik, Ange beraganatu gura eban edo bera Angereganatu, hobeto esan.

Baina nork agintzen eutsan zer egin behar eban? Zergaitik egin jaramonik bataren edo bestearen esanari? Zergaitik ez bizi askatasunean? Itaun honeek apurtzen eben Neloren barrua.

Heldu zan jai eguna. Egun eguzkitsua, beroa, haize-
rra ebilen. Gizonezkoak, gazte eta helduak goizeko me-
zara joan ziran ohitura zan legez. Andrazkoak eta atso-agu-
rak meza nagusira.

Goizeko meza ostean Nelok arin egin ebazan etxeko
beharrok. Ez egoan esan beharrik hau edo hori egin behar
da. Bera bakarrik nahikoa zan dana egiteko eta arin gai-
nera. Baebilen zerbaiten atzean edo norbait harrapatu na-
hian.

Lanok egin ostean Nelo, beste asko legez plazaratu zan.

Hasi zan eguerdiko jaialdia. Kanpai-hotsa mezearen
amaieran, bolanderotsa plaza inguruan, harri jasotzaileak,
aizkolariak, bertsolariak, trikitilariak, eskupelotariak eta
abar enparantza ondoko pelota lekuan.

Hainbat jendek inguratzen ebazan gure kirolariok.
Hango aupada ta txalo-hotsak ez eukan azkenik.

Ange eta Nelo aurrez suertatu ziran jai haretan. Nelok
ez eutsan begirik kentzen Angeri. Honek ere begikune-
kadtzo batzuk egiten eutsazan. Batarenak eta bestearenak
ez ziran zentzun bardinekoak. Ange apur bat larritu ere
egin zan Nelok zer nahi ete eban pentsatuaz. Bezperako
alkarriketa hazurretako unetaraino sartu jakon eta noi-

zean behin hotz-ikarak etorkozan. Neloren guraizana benetakoa ala zelangoa ete zan?

Nelo eta Kasko alkarren ondoan egozan. Nelo berean egoan. Ezer esan ezezik entzun ere ez. Halako baten Kaskok esan eutsan:

K.—Zer Nelo? Aizkolariak onak dozak e?

N.—Bai, gaur arratsaldean bai! Gaur bai!

K.—Zer dinok Nelo?

N.—E! Bai! Ez! A bai! oso onak! Nortzuk dozak?

K.—Gortuta hago ala? Ez dok entzun nortzuk diran?

N.—Bai baina izen honeek ez joazat sarri entzun ere ta...

K.—Bai! Baina han aurrean dagoana ezagutuko dok ez?

N.—Bariro ere hasi haz? Ezin deustak baketan itxi? Badakik... atzokoa ezin joat ahaztu.

K.—Ba... ekiok!

N.—Bai! esaten dan moduan balitzok. Errezena esatea dok, egitea beste bat. Lortzea gaitzena. Berton eukirik asko falta lortzeko!

K.—Baina, zerk berotu hau horrenbestean ba?

N.—Etxakiat. Horixe sartu jatak buruan eta orain lortu arte ezin nok geratu. Ur geldiak behin mogidu ezker...

K.—Lar gogor hartzen dozak gauzak. Apur bat nasaitxoago bizi behar jok gizonak. Ez dok mundua egun baten amaitzen eta neska hori ez dok bakarra.

Goiz aldeko kirol eta besteak amaitu ziran. Egurdatea joan zan. Nelok arratsaldekoa eroian buruan. Behingo ba-

ten amaitu eban bazkaria eta barruak irakingo baleutso legez ostera ere herriko plazara hurreratu zan.

Arratsaldeko bolanderak hasi ziran jendeari deika. Plaza ingurumarira hainbat ume, gazte eta zahar banaka bat ere hurreratu zan. Soinulariak gelditu barik eragoion inpernuko hauspoari.

Ange ere beste lagun batzuekaz batera heldu zan plazara. Heltzera joiala Nelo sartzen zan tabernan. Kafe bat hartzen konbidatu eban. Angek nahi bai baina ezin zituan bere lagunak itzi eta Nelogaz joan gehiagoko barik. Ez egozan ondo ikusita honelako ekintzak herrietan orduan, neskak lotsa galdukoak ez baziran behintzat. Neskak bakarrik ez, gizonaek ere bai. Orduko autorrentzuleak oso gogorak ziran eta agindu honetako pekatuak gogor hartzen ebezan. Herritarren aurrean ere ez egozan ondo ikusita. Ikusi ez dabenak sinistu ere ezin leikez egin. Arrezkero ohitura honeek galduta dagoz eta ez berez!

Behin, honelako soinulari bat, herriko plazan jotzen eban bat, herrian egiten ziran misioietan autortzera joan zan eta absolutioa hartu barik gelditzeko arriskuan egoan herrian balsak jotzen zitalako. Dirudienez, balsak edo garritik lotuta egiten ziran dantzaldiak pekaturako bide zabaltzaileak ei ziran. Hortik ba zelango bildurra eutsien seigarren aginduari, beste batzuk ere gitxiagozak ez egozalarik. Eleizeari dagokiozanak.

Angek ez eutsanean lagundu, Nelo penaz beterik joan zan eta bere lagun batzuekaz hartu eban hartzeko hori.

Bezperan legez Nelo ta bere lagunok tabernarik taberna ebilzan iluntzera arte. Erromeriaren aurretik pasa-



JESSE-84

tzen ziranean begirakuna batzuk neska artera eta... haginak estutu ta aurrera.

Nelori orduak luze egiten jakozan. Angegaz egoteko gogo itzala eukan. Denporea noiz ilunduko egoala, ardaoak dantzara bultz egingo baleutso legez sartu zan dantza lekuan, neska artean. Orain dantza bat gerotxoagoan beste bat, aimareak jotzen ziran artean azken balsa egin eta amaitu zan erromeria. Ezkontzekotan ebilzanak euren neska lagunei bide zati baten laguntzen eutsien etxerantz eta gero batzuk etxera jarraitzen eben eta beste batzuk tabernara.

Nelok Angeri lagundu behar eutsala ta bere lagunak alde batera itzi eta atzetik jarraitu eutsan.

Ange bere lagunakaz joian eta atzetik etorkola ikusi ebanean bere lagunei jarraitzeko esan eta Nelori itxaron eutsan. Nelo hurreratu jakonean biak ixil-ixilik egozan apur baten. Halakoren baten Angek esan eutsan: Zergaitik jarraitzen deustazu?

N.—Zergaitik uste dozu? Atzokoaz gainera jakin beharko zeunke!

A.—Beti dinostazu bardin! Baina, arratsalde osoa tabernarik taberna emon eta gero!

N.—Ez da egia hori! Arratsaldean, kafe bat hartzeko esan deustudanean zeuk ere berbera egin deustazu!

A.—Baina ez dira bardinak. Ni neska bat naz eta joan ez banaz jakin behar zenduke zergaitik izan dan. Gainera zure maitasun guztiak berbetan geratzen dira. Haizeak daroaz.

- N.—Itzi eidazu etxera laguntzen!
- A.—Ez, gaur ez! Norbaitek ikusten bagaitu...
- N.—Hor da ezagun nor dan nahi ez dauana!
- A.—Ezetz Nelo! Zuk gauzak errezezi ikusten dozuzala!
- N.—Noiz edo noiz hasi beharko dogu ez?
- A.—Bai. Baina ez dakit zelan ez eta noiz ere. Bildur naz.
- N.—Zeren bildur?
- A.—Ez dakit, baina lehenengotan...
- N.—Orduan, egon gaitez hementxe apur baten.
- A.—Nelo! aita ta ama zaharrak dira. Etxean itxaroten egongo jataz. Arregatu egingo dira berandu heltzen banaiake.
- N.—Oraindik goizetik da. Laster joango zara. Ezin dot geihago Ange! Ez zaitetz izan horrelakoa! Erdu hona!
- A.—Ez Nelo! Egon zaitetz geldi! Itzi eidazu baketan! Nelo, mesedez!
- N.—Ondo dago! Hori bada nahi dozuna itziko zaitut!
- A.—Ez eizuz gauzak horrela hartu, Nelo! Dana zeure era-
ra hartzen dozu! Ez dozu nire egoerea ikusten! Na-
hiago neuke zeure lekuan banengo! Gauzak ondo ur-
tengo baleuskue ezer ere ez, baina txarto urten ez-
kero neu naz galtzerik handienekoa!
- N.—Ondo dago! Gabon!

Hau esanaz banandu ziran gure neska-mutilok. Bata erdi negarrez eta bestea hasarre t'erdia.

Angeren ezetzak ez eutsan grazia handirik egin baina ez eutsan txikiagorik egingo tabernara sartzen zanean bere lagunengandik entzun beharko ebazanak.

Angerengandik banandu eta Nelo tabernarantz joian. Bakarrik joian berbetan. Lagunak igarriko eutsien jazo jakona eta hareen aurrean ezin gelditu txarto! Katuak ez leuke nahi saguak, ezta arranoak txoriak harrapatua izaterik!

Taberna aurreko ateetaraino heldu zan arren, barruko indarrak atzerantz bultzatzen eban.

Hau zala ta inork ez ikustearren, astiro-astiro, denporea emonez, etxerantz joateari emon eutsan. Ange berandu heltzen bildur bazan, Nelo goizetik edo goizegi helduko ete zanaren bildur zan. Inoiz ez zan joan hain goizetik. Etxekoak ere gaisorik ete doan pentsatuko ebela uste eban. Dana dala etxean guzur bat esatea errezagoa izango zan, eta hau nahiago, lagunen artean txikitzat gelditu baino lehen. Halan da guztiz ere hurrengo egunerako beste guzurren bat asmatu beharko eban edo Angeri lagundu ta gero etxera joan zala esan beharko eban lagunen aurrean.

Guzur honeek asmatzea errezago ziran Nelorentzat Angeri laguntzea baino.

Gau haretan, Nelo akordatzakoan heldu zan etxera. Bere gurasoak ez eutsien itxaroten hain goizetik. Gaisorik etorrelakotan egozan. Arduraz, zeozer gertatzen ete jakon. Ez zan Nelo hain goizetik etxera heltzekoa. Tabernea ta lagun artea eukazan amordetzat eta aitordetzat, jai eta jai bezperetan behintzat.

Nelo etxera sartu zanean, etxekoak sutondoan egozan beti legez. Supaztarrean azken ilintiak erretzen ziran artean luzetzen eben Nelori egin behar eutsien begirea.

Nelok, etxera sartu zanean, ohitura zan legez bere gaubon-onak emon eutsezan gurasoei eta sutean sartu barik bere gelara joan zan artez, jaiegunetako soinekoak aldatzeko asmotan. Gelarantz joiala, amak esan eutsan:

Amak.—Zer Nelo? Gaixorik zatoz ala?

Nelok.—Ez. Atzo ere lartxu eginda ta... etxera etortzea erabagi dot.

A.—Ez zara damutuko. Luzaro bizi nahi izan ezkerero oiloen bizimodua egin behar da: Goizetik jaiki eta horretarako goizetik otaratu. Jatekorik nahi dozu?

N.—Bai. Ipini eidazu kakoko apur bat. Erre eidazu soinekoak aldatzen dodazan artean. Burruntzian erreko bazendu gozoago egongo litzateke!

A.—Gainerako zer nahi dozu?

N.—Ipini eizu mazkilua laratzuan!

Nelo aldatzen zan artean, aitak burruntzari eragoion eta amak esnea sutan ipintzen eban. Kontuz-kontuz laratzua arandela bat beherago ipiniaz hurreratu eban esnea sutara.

Aitak.—Erdi Nelo! Hau prest dago. Arin ez bazatoz larregi egingo da.

Nelo baetorren aldatu ostean sutondorantz. Ortozik etorren.

Behatz gaintan. Gurasoak egozan lekura heldu zanean txixiluko erredapia jaso eta etxe barruko oinetako batzuk jantzi zituan.

Nelok eta bere aitak berbetan jarraitzen eben arten, ama, bere lana amaitu ebanean, oheratu egin jaken.

Aitak hurrengo egunean, sasoi ona baegoan, soloren batera joateko asmoa eukan. Bedarra ere sikatu behar zan, eta Nelo etxean egoan ezkeru bide batez konponduko eban asteleheneko lana.

Nelo afaltzen egoan artean aitak honela ekin eutsan:

Aitak.—Bihar, Nelo, haraxe latzinera joan beharko dogu.

Hainbat albitz eta zi-bedar dago, begirutzen dodan bakoitzean larritu egiten naz. Ia begien aurretik kentzen dogun!

Nelok.—Iñontzik egiten ez badau ez dakit zelan ibiliko garan! Berdagile edo kodainak zorrotz dagoz?

A.—Ibili naz ba arratsaldean zeozetan. Dana dala, han dagoan beste uztai-bedar eta sator-joz laster amostuko dira.

N.—Bedar barriak etorri behar badau ebagi beharko dogu eta zenbat eta lehenago hobeto. Ardura bat gixiago.

A.—Hangoa amaitu daigunean, orri apur bat kimatu nahi neuke, inon ez daukagu berderik eta.

Nelok afaldu arte horrela jarraitu eben biak bietara. Gero biak lotara.



Udea aurrera joian eta jendea auzo-lanetan ebilen. Gari beharrak ziran garrantzitsuenak. Batzuk alogeran eta beste batzuk, gaur nik bihar zuk, alkarri laguntzen. Eguzkia egiten eban bitartean jendeak ez eukan harrik orpoetan. Handik honakoak arin bai arin egiten ziran. Eguzkiari ondo esan behar izaten jakon.

Herri guztirako garia jotzeko makina bat egoan eta urte birik baten herriaren ertz batetik hasten zan bere lanak egiten. Etxe bateko lana amaitzen zanean beste etxe batera. Lanak amaitu eta hasiko ebezanak alkarri lagunduaz egiten eben euren garraioa. Ipuzterrik indartsuena eukana makineari tiraka joian ia beti aurretik. Eskastxuagoak eukazanak edo behiak eukazanak beste zerbaiti tiraka. Galtzua jasoko ebezan tuboak, makinea mobitzeko motorra, etab.

Nelo ta Ange auzokoak ziranez gero, urte baten Nelo-netik Angerenera eta bestean Angerenetik Nelonera eroaten eben.

Nelo zan etxean trebeena idi-gauzetan eta berak erabilten ebazan. Honelako egunetan, garia non jo, han bazkaltzen zan. Hau zala ta Ange oso pozik egoan eta Nelo zer esanik ere ez. Alkar ikusteko aitzaki bila beti. Egun haretan Angeren ardurea bazkaria ipintzea zan arren beti kanpora joateko asmoa. Batetik perejila behar ebala, bestetik letxuga, ta tomateak, iturriko ura ere bai besterik ez eukanean. beste batzuetan ardao fresko apur bat zala, baina beti Neloren inguruan. Hau ere, jakina, ez zan itsua eta nahiz eta eskuak beterik euki Ange etortzen zanean hankea luzatzen eutsan botatzeko asmotan edo.

Nelo, inora joatekotan, haraxe joaten zan pozik! Angegaitik eperdia ere galdu behar eban eta! Gazteen kontuak, esaten eben inguruan ebilzenak. Sasoikoa sasoian!

Angeren gurasoak ere poztu egiten ziran neurri baten gazte bi honeek horrela ikusiaz. Nelo satei oneko gaztea zan eta begikoa jaken.

Udako egun askotan legez, beroak eraginda edo hodeilainoak zeru gainean. Lanok hainbat arinen amaitu behar ziran.

Otordua izan arren ez eben makinea geratu eta zatika bazkaldu eben. Lehenengo kanpokoak eta gero etxeakoak izaten ziran. Nelo ere lehenengo txandan sartu zan. Lehenengoak urten eta bigarrenak sartu ziranerako minutuetan Nelo ta Ange bakarrik egon ziran. Ez eben denpora handirik izan baina alkarrengana hurreratzeko beste bai.

Lehenengo euri tantakadak jausten hasi ziranean amaitu ebezan gari lanak Angerenean. Hainbat gari meta jo ziran. Hainbat gari sartu sakuetan. Makina bat galauts iruntzi ere. Orain inurriarena etorren, garia kamarako troxetan sartu eta neguari itxaron. Ez zan errari goserik izango urte haretan.

Auzokoak ere esaten eutsien bazneruak eta labageak ez zirala geldirik egongo. Herriko errotariak ere poztu egiten ziran honelako urte garitsu edo artotsuak izan ezkeru, eurentzako ere ogia ta lana zalako. Klan, klan, klan, klan klan klan, hainbat gari jotzen zan urte barruan.

Harik eta hona, Nelo Angerenera sarri joaten zan. Gari lorra amaitu zanean, ida lorra etorran eta gerotxoago zur

lorra. Ange gurasoekaz bakarrik bizi zan ezkeru eta honeek ere ez ziranez lar gazteak Nelori deitzen eutsien laguntzeko.

Udagoiena izango zan. Indaba, arto eta horrelako beste gauza batzuk etxeratzeko sasoia, Angeren ama gaisotu zanean. Hoberakuntzarik ez ebela ikusten eta osagileari deitu ere egin eutsien. Etxekoak lurra gorrituko ete eban bildur ziran. Osagileak bere aldetik eginahalak egin arren ez eban lortu osasunera bihurtzerik. «San Bixente hotza neguaren bihotza» egunean hil zan Angeren ama.

Jazoera honek gauzak aldatu egin zituan. Angeren aita baserria saltzea erabagitzen dau. Salketa honetan hartuko eban diruaz bera biziko zan arteko jan-edanik ez jakola faltatuko eta. Horrez gainera, Angeri zerbait aitatu eutsan noiz edo noiz ezkontzeko bidea emonaz eta Nelogaz ezkontzea ez litzatekela txarrena izango.

Angek, oso gustora hartu ebazan aitaren aholku honeek eta ez ebazan luzaroan euki bere barruan. Orain bai ikusten ebazan bideak zabalik. Lar zabalik gauza onerako. Ertz batetik bestera igarotzeko modukoak. Gose hutsez dagoan bati, asetzera pasatzen danean, igartzen jakon aldaketa edo gauetik egunera dagoan aldaketa egingo dau Angek hemendik aintzina.

Etxeko bat hil ezkeru, ohitura zan legez, Ange igande batzuetan etxetik urten barik egon behar. Amaren hutsunea barruan eroan arren Nelogaz egon barik ezin egon. Orain berau da harren atzean doana. Hirugarren edo laugarren domeka arratsaldea zan Angek Nelori bidera urten eutsanean. Arratsaldeko bostak izango ziran. Hotz egiten

eban. Edurra egiteko itxurea. Goizean zurdea eta arratsaldean hoberik ez.

Nelok, Ange bidean ikusi ebanean, zerbait gertatzen ete jakon uste eban.

—Zer egiten dozu hemen?, —esan eutsan Nelok.

Angek.—Zeuri itxaroten nago.

N.—Zelan ba? Amari ez deutsazu luturik jagoten ala?

A.—Bai. Ez noa erromeriara. Zeugaz egoten etorri naz.

N.—Ez dozu nahi izango arratsalde osoan hemen egotetik, hotzak hilik ez?

A.—Ez, ez da luzararako izango. Zeugaz egotea nahi dot.

—Hemen urdaia katuaren atzean! Berekautan Nelok eta jarraitu.

N.—Gehiagoko barik?

A.—Ez. Zerbait esan behar deutsut baina orain ez daukagu astirik. Ez da hemen esateko modukoa. Gabaz etxerantz etorri zaitezanean etorri zaitez nire etxera.

N.—Baina... zer jazotzen jatzu ba?

A.—Esango deutsut.

N.—Baina... zelan joango naz gehiagoko barik zure etxera? Zer esango dau zure aitak oraindino ama hil barri daukazue eta?

A.—Horregaitik ez zaitez arduratu. Etxe ostetik bazatuz neu egongo naz zain. Esaidazu ordua gitxi gora-behera.

N.—Zeuk esango bezeunst nahiago neuke. Beharbadá ni etorri naitenean zure aita oheratu barik egon leiteke. Ez daigun problemarik sortu!

A.—Ba... hamarrak aldera gure aita ohean egongo da. Dana dala argirik ikusten ez badozu etorri. Aita ohean dagoala esan nahi dau. Gaur gainera apur bat lehenago joan daiten neu ahaleginduko naz.


Gero arte esanaz banandu ziran Ange ta Nelo. Neloren asmoak lehen aldazgora baziran orain aldazbehera ziran. Oraingoan bai saguak katua harrapatu ebala! Halan izan arren biak pozik. Nelok, Angeren jokoren bat ete zan ere pentsatu eban baina ikusi barik ezin esan zer zan. Jaki-teko gogo itzalak eukazan. Arratsaldeko orduak luze egin jakozan. Ange besterik ez eukan gogoan. Gaua heldu zanean lagunei, hurrengo goizean goizetik jaiki behar ebala esan eta joan zan Angeren etxerantz. Ez eukan bide galtze handirik bere etxera joateko ere, goratxoagoan bizi zan eta.

Angeren etxe ondora heldu zanean, argirik ez eban ikusi eta esan eutsan legez txistada bat nahiko izan zan Angek leihora urtetako.

Angeren logelea etxearen atzekaldean egoan eta errez igoten zan kanpaldetik. Behin biak barruan, barriketan ekin eutsien luzaroan. Halakoren batean Nelok esan eutsan:

N.—Bueno, ta zer? Zer behar deustazu?

A.—Begira. Ama hil zanik eta gehiago aita isildu barik daukat etxaldea saldu egin behar dauala eta saldu egin behar dauala. Orduan nik pentsatu dot zeuek erosi behar zeunkiela.



JESSE 84

N.—Zuk, ugazaba neu banintz legez egiten dozu berba.

A.—Ez. Ez deustazu ulertzen. Oraindik nire aitak inori ez deutso ezer esan baina noiz edo noiz esango deusolakotan nago norbaiti. Inork jakin baino lehen nik zeuri esatea nahi izan dot. Zeuk edo zeure gura-soak erosiko balebe zuen lurra eta gureak bat eginda lotuko litzatekez.

N.—Eta horrenbeste ardura deustu gure lurra eta zue-nak batenak izatea?

A.—Ez da hori bakarrik. Ez dakit zelan esan. Beharbada...

Ange isildu egin zan apur baten eta egozan lekuan, ohe gainean jezarrita, eskua leputik bota eta atzerantza bultzakadaxo bat eginaz biak etzun ziran. —...eta biok ezkonduko bagina?

Luzaroan egon ziran gehiago berbarik egin barik. Nelok izan zituan gogoak bete zituan. Gau haretan asetuta joan zan etxera. Gauza berbera egin eben baina asmo ez-bardinez. Ange ere bereak erabilen.

Gau haretan Nelok ez eban lo handirik egin. Aspaldian lortzekotan ibili zana hainbat ahaleginez, ahalegin barik etorri jakon. Gitxien uste ebanean.

Hain errez zer dala ta? Horrenbeste aldatu ete da ba Ange? Zerk ete darabil? Honeek eta honelako itaun asko ta asko egiten ebazan bere barruan Nelok. Erantzun bako itaunak, Jakina.

Nelok, hain ondo urten eutsan legez, aurrera jotea erabagi eban. Ahal zan artean behintzat ez eukan izteko

gogorik. Aitak baserria edo Angeren etxaldea erosi ez arren, Ange beretzakotzak jotzen eban.

Astelehenean bazkaltzen egozala, Nelok bere aitari, Angerenekoa azaldu eutsan eta aitak nahiz eta baietzik emon ez, Angeren aitagaz egon behar leukela esan eutsan.

Aitak azkenez, irribarretxu bat egin eta erantzun eutsan Nelori:

—Bai, nik etxaldea erosiko jotsat eta gero hi Angegaz ezkondu hadi; horrela dana geldituko dok saku baten.

Nelok esan eutsan guztia batzandu eban aitak eta egun beratan Angeren etxera ostera bat egitea erabagitzen dau.

Iluntzea zan. Aimareak. Doro, Neloren aita, Benarren etxera joatekotan dago eta halan egin ere.

Doro.—Zer Benar? Bazabilz zeozetan?

Benarrek.—Bai ba! Hementxe ingurumariok atontzen.

Lan handirik egiteko gauza ez baina geldirik ere ezin egon. Oraindino neguan ere bagagoz eta ez dago behar handirik eta tira, zelan edo halan aurrera goaz. Era honetara ezin neike jarraitu luzaroan.

D.—Baina oraindik gogor ikusten zaitut!

B.—Bai. Arrazoia dozu. Gogorregi esango neuke nik. Hazur guztiak alkarri lotuta. Bat mobitzen dodanean beste guztiak haraxe doaz. Noan moduan banoa ezin neike bidatu. Etxaldea saldu egin behar dot. Ez dakit dakizun.

D.—Ba... horretan natortzu. Gure Nelok ekarri deusku barri hori. Badirudi Angegaz ondo konpontzen dala edo...



JESSE 84

B.—Bai. Orain euren da mundua. Gureak egin dau.
Atzekoei ere noiz edo noiz itzi behar lekua.

D.—Orduan benetan doa etxaldearena?

B.—Bai, bai. Inork baino zeuk erostea nahiago dot gainera. Lur honeen diruaz ni bizi nazan artekoa badaukat eta bihar-etziko Angerentzat dote on bat ere bai.

D.—Tira ba. Oraindik ez daukadaz gauzak lar argi baina etorriko naitzu. Pentsatzen dozunean zegan izango diran aupada bat egidazu.

B. Bai. Ba... Zatoz gaineko baten. Orain ez nago zihur zenbat gizelan diran ere ta.

D.—Bai. Astegoienerantz etorriko naz. Nik be etxekeokaz kontatu behar dot. Eurak dira lanik gogorrenak egin behar dabezanak eta.

B.—Tira ba! Jakizu zeu zarala behinengoa. Beste batzuei baino erazago ipiniko deusut.

D.—Ondo dago. Gehiagoko barik ba, etorri arte.

Benar ez egoan lotan. Etxaldea saltzeko asmoa bakarririk ez eukan. Alabearen ardurea ere baeukan. Honen alde gehiago jokutzen eban.

Berba honeek, Angek, oso gustora entzun ebazan atean. Gauzak berak pentsatzen ebazan moduan harira etorkozan oraingo.

Angek oso zur jokutzen eban bere aldetik. Etxaldea-ren aitzakian Nelo harrapatu nahi eban. Nelogaz ezkon-

duez gero eta honen aitak etxaldea erosiko baleu, behar-bada barriro ere etxaldea beretzat izan eitekean. Era horretara bere bizimoduak urtenbide bat izango eban.

Ahalegin guztiak egin ebazan bizkortzeko eta arintzeko Doro eta bere aitaren arteko salerosketa. Bera zan ardura-dunena. Bera zan gehien galdu edo irabaziko ebana.

Nelo ez zan sartzan hainbeste. Denporea baino lehenago behartuko ete eben ezkontzen pentsatzen eban eta hori ere ez eban nahi, batez ere orain bideak zabalik ikusten ebazanean. Orain ez eukan ezkontzeko gogo handirik. Lehen ere egia esan ez larregirik.

Azken berbea Doro ta Benarrek eukien. Honeek ere euren etxeko laguntzaz kontatu behar. Diruaz eurak agintzen eben baina lan egiteko inor behar. Lurrak astintzeko, jorratzeko, udalantzeko, azpigarria ta sugarria ekarteko indarra behar.

Dorok eta Benarrek zehaztatu eben izango zana. Azken zigarro mutxikina ezpainetan ebela banandu ziran. Banandu baino lehen egun bat izendatu eben lurrak eta etxea ikusteko.

Zoli ebilen hurrengo egunetan Benar. Doro etorri eiteanean etxeko garbikuziaz eta gauzak ondo atonduta ikusiaz atzerantzakorik egin ez egiteko.

Benarrek erakutsi eutsazan laborerako solorik onenak. Baita ere zeintzuk ziran lantzeko lurrik onenak eta bigunenak. Etxe ingurua ere ikustekoa zan. Danerik egoan eta ondo zainduta. Labea, asteroko errari apitza egiteko. Errarigintzako tresnak. Hainbat atzeraurre egin eban belekia ere han egoan, gehiago egiteko prest.

Labondoan, lurrak lantzeko tresnak. Lurrak, bakoitza bere sasoian udalandu, goldatu, itailatu, narratu, zertu egi-ten ziran, lanzaharra askoz hobea zan eta.

Kanpoa ikustea bakarrik ez zan nahikoa. Lurrak eta etxe osoa ikusi behar ziran. Kortatik gora hasi ziran. Ez egoan ezeren faltarik. Aizkora, atxur, lauhortz, sarda, eskutila, jorrai... Korta gainean, bedarra gordetzeko toila-rea. Hemen troxa bat edo bi gariz beteta, hainbat anega gainera. Sutean, besua, auspoz, laratzuz, burrunzti, erre-galdara, trebera, su-burrina ta abarrez beteta. Honez gai-nera beste gela batzuk ere bai.

Sute ondoko gelan aspira eder bat errariarentzat. Goi-kaldean, kamarea. Eta hemen, artile, goru eta ardatza. Goitegia arto kapaxaz beterik, negu gogorren bat etorriko balitz etxeko giberriak betetzeko. Honeek ere ugariak zi-ran. Ipuzterria, behiak, baneka bat adargileak, txarri, oilo, etab. Abereak mendian ere izaten ziran. Herri-behiak, ze-zina egiteko. Ardiak, arkaztak, ahuntz eta umerrie. Urte beratan, bosten bat ardi, onenetarikoak kokaldeak galdu eutsazan.

Benarren etxea asko gustatu jakon Dorori. Horrez gai-nera baegoan bere etxean nork lan egin. Baita ere bae-kian, Benarrek beretzat lumatutako oiloa, jateko modukoa zala. Neloz gainera beste lau bost seme zituan eta gaz-teena izan ezik danak ziran satai onekoak. Azkenengoa goibe laburrekoa zan, atzeko errokoa.

Guzti hau ikusi ondoren, Doro pozik eta erostekotan etxeratu zan. Benarrek legez honek ere etxekoen artean esan behar eban hartu eban erabagia, bera bakarrik ez

zan gauza etxalde biak eroateko ta. Nahiz eta Nelok lagundu ez zan nahikoa.

Hurrengo egunean Dorok aurkeztu eutsen bere eritxia baina semeok ez etozan bat. Nelo bai, ez eukan zer galdurik eta. Ezbai honeri luzaroan ekin ondoren, aita zala ta bereaz urten eban. Hobeto esanda Nelok. Eztabaida hau zala ta Neloren anaiak bepuruak ilun erabilzen. Nahiago eben lantegitik urten ostean tabernan kuartilutxo bat jokatu lan egin baino. Gainera ez zan azitia izan behar, Nelok, Angek, Dorok eta Benerrek zer erabilen jakiteko.

Salerosketa honen ostean ez ebilen lotxarririk Nelok. Pozik egoan gauzak era honetara ipizkitu ziranean. Orain nahi ebanean ikusiko eban nahi ebana. Ange ere pozik baino pozago. Nahiz eta, errentorea harri labanaren gainean ibili, ez eban usterik horrelakorik jazoko zanik euren artean. Ez eban azpikeririk egongo zanaren eretxirik.

Benarrek hartu ebazan diruak banketxe batera eroan eta urteetarako ipini ei ebazan. Era honetara txakur batzuk gehiago atarako ebazan eta Angeri ere ezkontzera koan dote on bat emongo eutsan.

Handik aintzina Nelok egiten zituan baserri edo etxalde barri horretako lanik handienak. Iluntzeetan eta zapa-tuetan bere anaiak laguntzen autsien. Aurrera joian lan-tegi barri hau eta beragaz batera Nelo ta Angeren hartu-emonak.

Biak asmo bardinak ibili arren ez eben hori pentsatzen. Bakoitza bereak erabilen. Biak ebilzan gauza baten atzean baina ez ezkontzeko asmotan. Honek ez eutsen

ardura handirik emoten. Egunen baten beharbada ezkonduko ziran baina arteraino nahi ebena eginda eta nahi ebena egiteko ez zan behar ezkontzerik.

Norbait hazka hasten dan legez hasi ziran honeek ere baina gero noiz amaitu jakin ez.

Nelok egunero joan behar izaten eban Benarrenera. Honen etxeak lehen legez jarraitzen eban. Horrez gainera, Benarrek erabilen lur txatala udalantzen edo goldatzen edo ta besterik ez egoanean egurretan laguntzen eutsan Nelok. Lan honeen ostean bertan afaltzen eban eta gero etxera joialakotan etxe ostetik Angeren gelara. Angeren leihora ezazi bat ere errez heldu eitekean.

Gaurko gazte askoren moduko bizimodua eroen Angek eta Nelok. Ezbardintasun bat bakarrik egoan, orduan ixilean egin behar zala, eztarian, gaur garrantzirik emoten ez jakon gauza asko ta asko pekatu zan eta.

Ange eta Nelo ebilzan asmoaz ez da erreza honelako gauzak ixilean eukitea eta apurka apurka, Neloren anaiak ere jakin eben. Nelok ezin ebanean joan, bere anaia-ren bat joaten zan Angerenera laguntzen eta Angeren hazkurea kentzerik ez egoanez gero bera hasi zan Neloren anaiekaz jokabide bardinean.

Arrezkero Doro ere ikaratuta egoan bere semeen, Angerenera joateko, zaletasuna ikusirik. Lehenengotan hainbeste protesta eta orain irakiten bertara joateko. Beti, gaur neu joango nok!

Nelok Angeren jokabidea ikusi ebanean, maitasun brintzarik izan baeban ere Angereganako, laster galdu

eban. Ez jakon atsegindu Ange horretan ibiltzea baina bera ere bardin ebilela eta ez eukan besterik, bertan behera itzi edo lehengo moduan jarraitu. Bigarren hau egi-teari emon eutsan.

Inguruko jendea, auzokoak, apur bat konturatuta legez egozan baina ez ekien horraino heltzen zanik.

Benarrek ia ia ez eban lanik egiten soloetan eta Angek gitxiago, baina etxe haretan ez zan ezer faltatzen ez janaririk ez besterik. Nonondik heltzen jaken. Doro ta bere emaztea hainbat beleki behar egindakoak izan arren bazneru onak eukiezan etxean. Lukainka, arrautz, ogi, indaba, arto, gari, egoana egoala erabiltzen eben txarteltzat Angerengana joaten ziranok.

Pertsona bik dakiena gordetzea erreza ez bada, lauk dakiena gaitzagoa izaten da. Horregaitik, egunak joan egunak etorri, Nelo ta bere anaien lagunak ere jakinez jakinez joiazan, non zer gertatzen zan. Anaion ostean lehenengo jakiten Kasko zan. Gero beste asko, jakiten eta txandea zaintzen ere bai.

Angerenak egin eban. Saiiek okela ustelera legez gaineratu jakozan. Arrezkero sarritan esango ebalakotan nago, Angek, banengo nengoanean!

Lagunen artean beti legez, beti batenbat adarra jotzeko prest. Honeek Angerengana joateko gogorik ez ebenak edo gauza ez ziranak izaten ziran gehienbaten. Gauzea da ze, Ange haurdun egoala zabaldu eben. Erdi benetan erdi txantxetan baina gure anaioi uleak arteztu egin jakezan.

Neloren anaiak, lan egiten eben inguruan, ostatuan, gelditu ziran, zer zan edo zer ez zan jakin arte. Nelok os-



JESSE-84

tera ihesbiderik ez eukalako bertan gelditu zan, denpo-reak erakutsiko ebalá edurra mendian esanaz.

Era honetako gauzak etxean baino lehenago jakiten dira kanpoan. Benar ez zan heldu jakiteraino baina inork esan barik susmatu eban ebilenaren barri. Zorionez edo zoritxarrez, sarrítan legez oilategira joan zan han egoan aboa hutsik egoala ta. Urez betetzen eban bitartean oílo baneka batek kanpora urten eutsan etxe osterá joanaz. Atzetik jarraitu eutsen bueltan bueltan ekarríko zituala ta. Etxe osterá heldu zanean eta han ikusi eban bide zidorra ikusi, gehiago jarraitzeko gogoak kendu jakozan. Kontuz-kontuz, astiro-astiro, buruz behera jarraitu eutsan bide hari eta amaitzen zan lekuaren gainean Angeren logelea. Bidetxu haretan letrerorik egon ez arren, Benarrek hainbat gauzá irakurri zituan. Orduan konturatu zan euren etxera hainbat eta hainbat gauzá zein bidetatik heldu jaken. Orain konturatzen zan Nelo ta bere anaiak eukien zaletasuna eurenera joateko. Gizon saiok!

Guzti hau ikusita ere ez eutsan Angeri ezer esan honetaz. Gauean afaltzen jezarri ziranean, Benarrek ezin eban ezer jan. Bihotz-kullarea itxi jakon egun batzuetarako, baina orratino bere onerako ziran berba batzuk esan eutsazan:

—Alabatxue, urteak aurrera joataz eta ez naz betíko. Gaizenbaten bizimodua zeuk bakarrik eroan beharko dozu eta zerbait ikasi beharko zeunke. Besterik ez bada ere adabazin bat botaten. Gaur behar ez badozu ere nork daki bihar-etzian zer beharko dozun.

Ange ez egoan aitari ezetz esatera. Ahal zanik eta ondoen esan behar eutsan gauzak bigunago joan eitezán.

Halan da ba ze, handik egun batzuetara Ange josten ikasten hasi zan. Ez zan bera bakarra ikasten ebilena, beste bost edo seiren bat baziran. Orratzeko firuak ez dakik gora-behera handirik egingo ebanik baina uste dot mihinfiruak baietz. Adabazinak firuaz baino mihinaz arinago botatzen ebezan. Beraz, herriko jazoera edo gertakizunak ixilean eukiteko moduko lekua. Angeri ez eutsien ezer esaten aurrean egoanean baina besteak baino berandutxuago heltzen zanean edo lehentxoago urten, han jausten ziran jaustekoak! Inoren erruki barik. Ez eukien ahoan gigarrik. Ez zan inori kalte egiteko asmotan egiten baina honelako taldeetan barriketan egitea ofizioko gaisoa da eta ez dago botikarik osatuko dauanik.

Angek ere beste batzuen parean jarraitzen eutsen barriketa honeei egunak zehar. Nahiz eta berari aurpegira ezer bota ez, sarritan esaten eben ixilean bere kideak:

«Esaleiok astoak mandoari, ken hakit hementik belarandi hori».

Gauzak ez joiazan bapere ondo. Angeren aitak kanpo koentzat ezer agertu ez arren, armin egoan noiz lehertuko. Bere alabeagaz ebilzanei esatea alperrik izango zan. Alabeak ez eutsan jaramonik egingo; berandu zan horretarako; beleak beti egiten dau atxera.

Benar bere zenetik kanpora egoan. Ezin eban eta ez eban nahi ha jazoera ha irunzterik. Zer egin?

Etxe osteko bide zidorra ikusi ebanetik eta gehiago hainbat gaba igaro zituan begiran. Hilik bako begiran. Alabearen jokabide hori aldatzerik ez baegoan ere, nortzuk ziran jakin nahi eban.

Ezin eban ulertu bere alabea zelan ebilen horrela, Nelorenganako agertzen eban zeraz, maitasunaz.

Benarrek ez ekian hau ere tarteko zanik. Ez egoan denpora handirik igaro beharrik. Egun batzuk gerotxuago, Benar sorotz egiten gelditu zan gau baten. Berbalotsa entzun ebanean, ixil-ixilik leihora burua atara eta Kasko ezagutu eban.

Barruak hartu ezinik Nelorenerantz joian honeri esateko asmotan han gertatzen zanaren barri. Ez eban nahi inondik ere Nelo engainatzerik.

Etzetik urten eta metro batzuk barru, barruko indar batek, ez dakit zerk, Benar atzerantza bultzatzen dau.

Etxera joan zan arren ez egoan bertan bera izteko ezta gitxiagorik ere. Ez ekian zein edo zer zan onena, bere alabeari esan ala Nelori esatea. Nelori esateak edo ez esateak... azken baten Kaskoren lagun handia zan eta lehen-
txoago edo gerotxoago jakingo eban, ha ere saietariko bat ez bazan.

Urtenbiderik ikusten ez eban legez, zaharrak zaharretara hobeto konpontzen dirala eta Dororengana joatea pentsatzen dau. Horretarako egunik onena domekea zan. Gazte guztiak etzetik kanpo eta ez eben eukiko enbarazurik.

Benar Dororenera heldu zanean ez eutsan beste munduko inportantziarik emon, sarritan joaten zan eta. Handik, hortik, hemendik ekin eutsien zezeri. Denporea aurrera joian eta Benarrek «bere lanea irun nahi eban». Alde batera itxi hari bata eta besteari heldu eutsien.

Benarrek azaldu eutsanean eta Kasko ikusi ebala esan, Dorok burua makurtu eta eskua okotzean zehar batera eta bestera erabili eban. Hau esateaz Doro ez zala harritu ikusi ebanean, bera zala ez ekian bakarra konturatu zan. Dana dala ez eutsan itaundu ekian ala ez. Nahikoa aituzo eutsan.

Berandu ere ba-zala ta agur moduko bat egin eta banandu ziran.

Denporea aurrera joian eta han ez zan ikusten aldaketarik. Azken baten aitak Angeri zerbait esatea erabagi eban baina alperrik, entzun da gor, ikusi ta itsu. Aitak behin eta barrero esan arren alperrik. Azeriari zenbat eta maldezio gehiago buztana lodiago. Ez ebazan aitaren esanak ausnartzen. Benarrek etxe haretan ez egoala zereginik ikusi ebanean, bere ahalagin guztiak iheska bihurtu zirala eta bere alabeak zorri biztuaren itxurea hartzen joiala, etxetik hanka egiteko tantuxanaldiak emon eutsan. Ez eukan motibo faltarik.

Erabagi hau hartu ebanetik, nahiz eta inork jakin ez, bepuruak ilun ikusten ziran Benarrenean. Alabeak ere begirakune eskasak egiten eutsazan.

Benarrek, pentsatuta eukan legez, handik lasterrera etxetik ihes egiten dau, alabea bertan behera itxita. Angeri ez eutsan larregirik ardura, hobeto baino ez, nasaiago biziko zan. Baina gauzak horrela ere ez dira amaitzen eta auzoak laster susmatu eben Benarren hutsunea auzonan. Berak hilgo joan! inoan jendeak. Bakarrrik egonez gero ez jaukak zaratarik nork egin ere! entzuten zan beste batzuen artean. Daroan bizimodua eroateko ez dau behar aitarik. Ha barik errezago eroango dau. Denporeak erakutsiko dau

edurra mendian. Honelako eta beste era askotako berbak inoezan herritarrak. Benarrek, etxaldea saldu ebaneko diruok beragaz eroazan. Hanka egite hau zala ta, luzarotxuan egon ziran saiok Angerenera jatsi barik. Gai hau apur bat ahaztu arte. Gero barriro okela ustela non, han.

Angeren izena mihin puntetan ibili arren, hau ez zan ostandu jendearengandik. Hau, hori ta bestea esan arren, inon diran gauzak esan arren, gauzarik zorrotzenak esan arren, ez egoan Angeren bihotzeko kortikea zulotzerik.

Hau dala ta josteari ere ez eutsan itzi. Zer egin eikean besterik, jan-edanik ez jakon falta inoiz eta?

Egunak joan egunak etorri, apurka-apurka, konturatzan joian joskileen artean lehenago erabiltzen ziran gai batzuk ez zirala erabiltzen. Nahiz eta gaia berak atara behingoan aldatzen ebela konturatzen zan. Zerbait ostantzen zan han. Itauntzerik ere ez eban nahi izaten besteak, arduraz egoanik ez eien pentsatu.

Etxean bakarrik egoten zanean, gauzak gogoratuaz gogoratuaz, hariari tiratuaz tiratuaz, konturatu zan joskileen artean egoan ixilunea ez zala beragaitik, bera egon zan artean ere erabiltzen ziran eta. Orduan Nelotaz pentzatzen hasi zan.

Nelo lehen legez sarri ez jakon joaten, baina joaten jakon. Ez eukan ba oinarririk haren aurka pentsatzeko ere.

Nelok bere aldetik, han ez egoala zereginik ikusi ebanean, beste neska gazte, dotore bategaz hastea lortzen dau. Oraingoan Nelo, neska honegaz, eskontzeko asmotan hasi zan. Baina hemen ere ez dira amaitzen gauzak. Nelok, bes-

te neska horregaz ibili arren, Angerengana joateari ez eutsan itzi.

Ez zan behar denpora askorik barri hau jakiteko. Neloren neska lagun barri hau herri beratakoa zanez gero, jakin beharrekoa zan lehentxuago edo gerotxuago.



Angek sustertu ebanean nogaz ebilen, gehiago ahale-gintzen zan Nelo beraganatzeko, baina honek noizpehinkoaz nahiko eban. Oraindino baegoan Angerengan, Nelogaz ezkontzeko itxaropentxu bat.

Eguna aurrerago ta argiago ikusten eban Angek Nelo benetan ebilela eta ez eukala zereginik. Barru guztia gorrotoz bete jakon. Unetaraino sartu jakon gorroto hau. Ez egoan parkatzekotan. Pekatu honen zorra emongo eutsan lehenengo erea harrapatzen ebanean.

Nelok gauzak argi eukazan. Denporalditxu baten ibili neska horregaz eta laster ezkondu. Angerengana joateari itzi eutsan eta denpora gitxi barru joango ziran eleizan lehenengo jaionak.

Nelo bere emaztegaiagaz ia beti toki bardinean alkar-tzen zan igandero. Ordua ipinita izaten eben eta alkarri bide erdi egiten eutsien.

Honelako domeka baten, ez dakigu zergaitik, kontu-ratu barik edo, erlojuak txarto edo, bata bestea baino beranduago heltzen da izendatutako leku haretara. Nelo zan azkenengo heldu zana.

Berandu heltze honek eta neska laguna han ez aurkitzeak zer pentsatu emoten deutso Nelori.

Bere burua bakarrik ikusi ebanean etxera bihurtu zan eta ilundu arte itxaron eban. Egun haizerretsua. Ondo etorri jakon Nelori kanpoan egoteko eta ez etxean, gurasoak ikusi eien bildur ere bazan eta.

Neskak erromeriatik etxeratzeko ordua heldu zanean eta pentsaturik emaztegaiak barre egin deutsal barrero

ere Angerengana joatea erabagitzen dau. Ilundu zan eta jakin ebanean Ange bere etxean egoala, betiko bide zido- rretik hurreratu zan Angeren leihopera. Apur baten itxa- ron eban eta Angek argia amatatu ebanean betiko txista- dea egin eutsan.

Angek arin ezagutu eban nor zan eta beste txistada baneka bat ere eginazo eutsazan, zein eta entzun ez baleu legez. Txistadok ziran bitartean, Angek, Nelogaz hasi za- netik eta honako gorabehera guztiak gogoratu ebazan eta batez ere azkenean egin eutsan burlea ere bai. Aukera hau ez eban galdu nahi Angek inondik eta inora ere ez. Gora igoteko esan eutsan Nelori. Nelo inoiz baino lotso- rrago sartu zan. Buruz behera, gauzak konpontzeko zer- bait asmatu nahian ebulan Angek irribarretxo batez begi- ratzen eutsan artean.

Ez ekian Angeren ardi-narruz jantzitako barre hare- tan zer ostentzen zan! Angek ere bere aldetik, zein eta inoiz baino pozago aurkituko balitz legez hartu eban Ne- loren ikustalditxoa. Inoiz baino berba gozoagoak esaten eutsazan; etxean eukan paitarrik gozoena atara eutsan.

Nelok pozaren pozez halan zalakotan, Ange benetan ebilelekotan jazo jakon guztia kontatu eutsan, bere emaz- tegaiarenganako amurrua agertuaz.

Gau haretan ez egoan ezetzik Nelorentzat. Dana ze- lai egoan. Berba gozoak batez ere. Dana zan bai maitea. Nahi dozu gehiago? Zeuk esan! Beste paitar apur bat? Egon trankil! Bai ahaztuko dot. Ez da luzarorako izango. Honelako esaldiz bete eban Angek logela guztia euren asezkalditxoa egin arte.



Gau haretan Nelok, bere emaztegaiaren otsaginetatik ihes egin eta Angeren lumazko lezan sartu zala uste eban.

Pozaren pozez, Nelo lokartu zan. Angek, Nelo lo egoa-
la ikusi ebanean kontuz-kontuz ohetik jaiki eta kortara
joan zan. Han eukan aizkorarik zorrotzena hartu eta nelo
egoan logelara joanez izugarrizko aizkorakada bat emon
eutsan saman. Gorgoilea ere ebagi eutsan.

Bataren gorantzako odol iturriak, beherantzako izar-
di hotza sortzen eban bestearengan. Bataren heriotz-arna-
sestu larriak, gorroto-arnasa zorrotza bestearengan. Nelo-
ren kirio edo nerbioen azken mogimenduak moteltzen
joiazan artean, ikaragarrizko dardakadak eta hotzikarak
sortzen ebazan Angerengan. Batarengana heri hotza hu-
rreratzen zan artean, inpernuko su goriak erretzen eban
bestea.

Guzti hau ixilean gordeko ebalakotan, Angek, Neloren
gorpua nonora eroan nahi izan eban. Gelatik urten eta zer
egin eikean pentsatzen hasi zan eskuak buruan ebazala
supaztarrean. Denpora handirik ez eukan. Udea zan eta
goizetik argitzen eban egunak. Bizkor ibili beharra egoan
inork jakin ez egiteko. Ange behetik zala, kasualitatez
gau haretan Kasko joiakon. Leihopera heldu eta txistadea
egin eutsanean Angeri eta honek erantzunik ez, leihora
igon eban sartzeko asmotan.

Igon baeban ze igon! Ahoa isteko asti barik eta ilar-
gia baino zuriago heldu zan etxera. Adore eskasa eukan
inori esateko ere. Nori esan? Eta esanda ere, zelan jakin
ebala esan? Zelan esan bera ze asmok eroan eban hara
eta ordu haretan?

Ange bera zan nahiko, nahiz eta gogoz kontra, zer egin eban esateko. Hurrengo egunean, berak egin eban gauza bardinaz ordaindu nahi izan eban egindako pekatua. Ez eban aurkitu ostera berak egin eutsana berari egitekorian.

Hurrengo egunean Nelo falta zan bere etxean. Inork ez ekian nondik zan. Handik ibili hortik ibili ezer ere ez. Azkenez, Angeren etxera jo eben eta hau ere zauriturik aurkitu aizkora bardinaz.

Ange zauriturik aurkitzea zala ta, Kaskok ez eukan beste urtenbiderik ikusi ebana kontatzea baino.

Handik aintzina etxe osteko bide zidorra betiko jantzi zan bedarrez eta Ange legearen eskuetan gelditu zan.